

Errealitate soziala eta euskara Araban

Euskaldunon Egunkaria, 1991-07-23: 2.

"Unidad Alavesa" geuk uste baino gehiago hazi da; zer oker egin ote dugu Euskadiren egitasmoa burutzerakoan? Errealitate soziala omen da kausa. hau ez da berria. Hemen bada objektiboki neur dezakegun faktorerik. Euskal Herriak baditu mendi artean kulturalki ongi babestuak izan diren eskualdeak, eta, aitzitik, lau taldetan afrontuko egoera zaila bizi izan dutenak. Nafarroako Erriberan euskarak eraso gogorrena, XIX.goan jasan bazuen, Araban XVIII eta XIXan nozitu zuen berea; ordura arte Gasteizen (1778) euskara hitz egiten zen. Hara laburki gurutzeak: *Lautadan*, Barrundia, Donemiliaga, Asparren, Zalduondo, galera XIX.go hasieran abiatzen da, eta XX.enean burutzen; Burlegu, Dulantzi, Hiruraitz-Gauna, Agurain, XVII.enean hasten da galtzen, XVIII.enean gorpuzten da eta XIX.aren hasieran amaitzen; *Aiarako haranan*: Okondo, Artzeniega, Aiara, Laudio, 1850-1920 bitartean galdu zen hizkuntza, Amurrio, Orduña, Lezama, Arrastarian XIX.engo mende bukaera arte gorde zen; *Gorbealdea*: Urkabustaiz, Zuia, Zigoitia, 1850 eta 1920 bitartean galdu da; Legutio, Arratzu-Ubarrundia, galera azken gerratean sortzen da, Aramaion bizi da. (Hizkuntz borroka Euskal Herrian, Euskaltzaindia, Bilbo, 1939). Ez da orain mila urteko! Gure herriaren hizkuntza berreskuratu nahi badugu, beste herri askok bezala geuk hau dugu historikoki aukera bakarra. Badu bere Legea. Euskara "faktore desegituratzailea" dela esatea ez da zuzena; hemen aspaldi desegituratu zutena Euskal Herria izan zen, eta geroztik lasai bere gainean zampaketaren, biolentzian dabilena gaztelera da. Gasteizko Jaurlaritzak, Autonomiaren babesa duen legez lanean jarri duen hizkuntza politikak aurrera jarraiki behar du Araban ere.